



# NAFARROAKO

# Aldizkari Ofiziala

## ESKOLAZAINEN OPOSIZIOA

2010eko 79. Nafarroako Aldizkari Ofizialaren separata, ekainaren 30ekoa

**DEIALDIA, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari nagusiak ekainaren 17an emandako 141/2010 Ebazpenaren bidez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko eskolazain izateko 43 lanpostu oposizio bidez betetzekoa.**

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari nagusiak ekainaren 17an emandako 141/2010 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko eskolazain izateko berrogeita hiru lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zen.

Hautaketa prozesua honako hauetan xedatutakoari jarraikiz egingen da: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aipatutako estatutua garatu eta gauzatzeko Sarrera Erregelamendua, gainerako aplikazio arauak eta deialdi honen

### OINARRIAK

#### 1.-Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko eskolazain izateko 43 lanpostu, D mailakoak eta funtzionarioen araubidekoak, oposizio bidez betetzea. Lanpostuak txanda hauetakoak dira:

–19 lanpostu, txanda irekian.  
–20 lanpostu, igoera txandan.  
–4 lanpostu, txanda murriztuan, %33ko edo hortik gorako desgaitasuna dutenentzat.

1.2. Deialdiko lanpostu hutsak hauek dira:

43 lanpostu, Hezkuntza Departamentuan:

–41, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusian.

• 3, Ribera del Arga BHIIn. Plantillako zenbakiak: 30026, 31893, 36361. Destinoa: Azkoien.

- 2, Marques de Villena BHIIn. Plantillako zenbakiak: 30900, 33355. Destinoa: Martzilla.
- 2, Donapea IIPn. Plantillako zenbakiak: 31092, 35838. Destinoa: Iruña.
- 2, Sierra de Leyre BHIIn. Plantillako zenbakiak: 31404, 35639. Destinoa: Zangoza-Irunberri.
- 1, Eunete BHIIn. Euskararen ezagutza, 2. jakite maila. Plantillako zenbakia: 31695. Destinoa: Iruña.
- 1, Amazabal BHIIn. Euskararen ezagutza, 2. jakite maila. Plantillako zenbakia: 32639. Destinoa: Leitza.
- 1, Askatasuna BHIIn. Euskararen ezagutza, 2. jakite maila. Plantillako zenbakia: 32668. Destinoa: Burlata.
- 2, Ibaialde BHIIn. Plantillako zenbakiak: 32938, 33992. Destinoa: Burlata.
- 1, San Juan/Donibane BHIIn. Plantillako zenbakia: 33229. Destinoa: Berriozar.
- 1, Toki Ona BHIIn. Euskararen ezagutza, 2. jakite maila. Plantillako zenbakia: 33379. Destinoa: Bera.
- 2, Basoko BHIIn. Plantillako zenbakiak: 33473, 34669. Destinoa: Iruña.
- 1, Sancho III el Mayor BHIIn. Plantillako zenbakia: 34459. Destinoa: Tafalla.
- 3, Ega BHIIn. Plantillako zenbakiak: 34882, 35738, 36057. Destinoa: San Adrián.
- 1, Alaiz BHIIn. Euskararen ezagutza, 2. jakite maila. Plantillako zenbakia: 34965. Destinoa: Barañain.
- 2, Valle del Ebro BHIIn. Plantillako zenbakiak: 35643, 37444. Destinoa: Tuteria.

- 1, Lekaroz/Elizondo BHIn. Euskararen ezagutza, 2. jakite maila. Plantillako zenbakia: 35682. Destinoa: Lekaroz/Elizondo.
  - 1, Biurdana BHIn. Plantillako zenbakiak: 35729. Destinoa: Iruña.
  - 1, Iturrama BHIn. Euskararen ezagutza, 2. jakite maila. Plantillako zenbakia: 31967. Destinoa: Iruña.
  - 1, Dantza Eskolan. Plantillako zenbakia: 35745. Destinoa: Iruña.
  - 2, Tafallako Politécnico Tafalla BHIn. Zenbakiak: 35831, 37442. Destinoa: Tafalla.
  - 1, ETI IIPn. Plantillako zenbakiak: 35832. Destinoa: Tuteria.
  - 1, Azagrako DBHIn. Plantillako zenbakiak: 36076. Destinoa: Azagra.
  - 1, Goi Mailako Energia Berriztagarrien Ikastetxe Integratuan. Plantillako zenbakia: 37436. Destinoa: Imarkoain.
  - 3, Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Plantillako zenbakiak: 34299, 38045, 38046. Destinoa: Iruña.
  - 1, Pedro de Ursua BHIn. Plantillako zenbakiak: 34034. Destinoa: Iruña.
  - 3, Pedro de Ursua BHIn. Euskararen ezagutza, 2. jakite maila. Plantillako zenbakiak: 38073, 38074, 38075. Destinoa: Iruña.
- 2, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusian:
- 1, Irakasleentzako Laguntza Zentroan. Euskararen ezagutza, 2. jakite maila. Plantillako zenbakia: 37001. Destinoa: Lekaroz.
  - 1, Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroan, Iruñeko Andrés Muñoz Garde HBIPrekin elkarbanatua. Plantillako zenbakia: 35640. Destinoa: Iruña.
- 1.3. Igoera txandako lanpostuak hutsik geldituz gero, izangaiek ez dutelako hautaprobak gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa lortu, txanda irekikoei gehituko zaizkie.
- Era berean, desgaitasuna dutenentzako txandako lanpostuak bete gabe geldituz gero, izangaiek hautaprobak gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa atera ez dutelako, bidezko diren txandetakoei gehituko zaizkie, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren 15.3 artikuluan ezarritako hurrenkeraren arabera.
- Bestalde, igoera txandan edota desgaitasunak dituztenentzako txandan eskaintzen diren lanpostuak baino izangai gehiagok gaintitzen badute, txanda horietan lanpostua eskuratzen ez dutenek aukera izanen dute txanda irekiko lanpostu hutsak eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehia garbian eta eskuratutako azken puntuazioaren arabera.
- Era berean, deialdiaren 7.2 oinarrian agiriak aurkezteko ezarritako epea bukatzen denean, deialdiaren 2.1.2 oinarriko betebeharrak berariazkoak betetzen ez dituzten igoera txandako izangaiek aukera izanen dute txanda irekiko lanpostuak eskuratzeko, aurreko leerroaldean adierazitako modu berean.
- 1.4. Lanpostuen ordainsariak hauek izanen dira: uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ordainsarien Behin-behineko Erregelamenduan D mailarentzat oro har ezarritakoak, eta aplikatu beharreko gainerako xedapenetan kasu bakoitzerako ezartzen direnak.
- 1.5. Halaber, deialdi honen bidez, hautapen prozesuan parte hartu eta lanposturik lortzen ez duten izangaiekin aldi baterako kontratatutako izateko izangai zerrenda hauek osatu nahi dira:
- Probak gaintitu arren, lanposturik lortu ez duten izangaiei zerrenda, departamentu eta erakunde autonomo guztietarako.
  - Administrazio Erroan aldi baterako kontratatutako izangaiei zerrendak.
- Izangaiei zerrenda horiek deialdi honen 10. oinarrian xedatutakoaren arabera onetsi eta kudeatuko dira.

## 2.–Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaiek, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean eta agiriak aurkezteko epea bukatzen denetik (deialdiaren 7.2 atalean adierazia) lanpostuaren jabetza hartu arte, baldintza hauek bete beharko dituzte:

### 2.1.1. Izangai guztiek bete beharreko baldintzak.

a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa edo, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa.

Orobat, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetako herritarren ezkontideek, edo aipatu nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartutako estatuetako herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoei eta ezkontidearenei, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteta izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina gaintitua ez izatea.

c) Eskola graduatua, lehen mailako lanbide heziketa edo titulu baliokidea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

d) Euskaraz jakin beharra atxikia duten lanpostuak eskuratu nahi baldin badira, hizkuntza eskola ofizial batek luzaturiko Euskararen Gaitasun Agiria edo ofizialki horren baliokidetzat jotzen den agiria izatea, 2. edo 3. jakite maila duen lanpostua eskuratu nahi izanez gero, edo Hizkuntza Eskola Ofizialean lau ikasmaila edo Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan bederatziz "urrats" gaintitutak izatea, 1. jakite maila duen lanpostua eskuratzeko.

Izangaiek, aipatu diren titulu edo ikastaroak ez baditu, proba bat egiteko aukera izanen du, eta horrela zehaztuko da beharrezkoa den maila baduen hizkuntza horretan. Izangaiek, askatasun proba hori egin nahi badute, deialdian parte hartzeko eskabidean adierazi beharko dute, horri dagokion tokian.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestatuko du nahikotasun proba.

e) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizita ez izatea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek frogatu beharko dute ez dutela diziplina zehapenik edo zigor penalik beren estatuko funtzio publikoan sartzea eragozten dienik.

### 2.1.2. Igoera txandako izangaiek bete beharreko baldintzak.

Igoera txandako izangaiek, aurreko atalean adierazitako baldintzez gain, hauek ere bete beharko dituzte:

a) Nafarroako edozein administrazio publikotako langile finkoa izatea, edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari transferitutako Justizia Administrazioaren zerbitzuei atxikitako langile finkoa, eta abiapuntuko lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

b) Deialdiko lanpostu hutsen maila berekoa edo apalagokoa izatea.

c) Administrazio publikoetan bost urteko antzintasun aitortua izatea, Nafarroako Polizia Kidegoetako kideen kasuan izan ezik, horiek frogatu beharko baitute zortzi urtez benetan eman dituztela zerbitzuak kidego horietan; edo administrazio publikoetan zortzi urteko antzintasuna frogatzea.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarri dena aplikatuz, igoera txandan parte hartzeko gainerako baldintzak betetzen dituzten Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek ere txanda horretan parte hartzen ahalko dute.

2.1.3. Desgaitasunak dituzten pertsonen erreserbako txandako izangaiek bete beharreko baldintzak.

Desgaitasunak dituzten pertsonen erreserbako txandako izangaiek, 2.1.1 atalean aipatzen diren betebeharez gain, %33ko edo hortik goitiko desgaitasun bat izan beharko dute, ofizialki aitortua, eta hori 3.2 oinarriaren hirugarren puntuari ezarrita dagoen bezala frogatuko da.

2.2. Izendatua izateko proposatzen den izangaia betebeharrak frogatu beharko ditu, deialdiaren 7.2 atalean ezarritako epean eta moduan. Salbuespen izanen dira agiri horiek eskabidearekin batera aurkeztu behar dituzten izangaia, 3. oinarriarekin bat.

### **3.-Eskabideak aurkezteko eta tasak ordaintzeko epea.**

#### **3.1. Tasak.**

Azterketa eskubideengatik eta espediente formalizatzeko, 15 euroko tasa ordaindu beharko da. Azterketa eskubideen tasa ordaintzen ez bada, baztertu egingen da izangaia.

Honako hauek ez dute tasarik ordaindu beharko:

a) %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak, hala onartu bazaie.

b) Deialdia argitaratu aurretik hilabetez edo luzaroago lan eskatzaile gisa inskribaturik egon diren pertsonak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izanen da inskribaturik egon diren bitartean eskaini zaizkien lan egokiei uko egin ez izatea eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izatea, justifikatutako kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorakoa den diru-sarrerarik ez izatea hilabetero.

Lan eskatzailea dela frogatzeko, enplegu bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko du. Bertan, lan eskatzaile gisa inskribatu zeneko data agertuko da eta, orobat, adieraziko da inskribaturik egon den bitartean ez diola uko egin handik eskaintako lan egokiei, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Interesdunaren aitortzearen bidez frogatuko da ez duela hilabetero lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako diru-sarrerarik. Adierazpen ereduak Nafarroako Gobernuaren Informazio Bulegoan eskuratzen ahalko da edo, bestela, Interneten bidez, arestian emandako helbidean.

Sistema hauetako bat erabiliz ordaintzen ahalko da tasa hori:

–Telematika bidez, 3.2 oinarriko A.1 letran adierazitako moduan.

–Behar den bezala betetako ordainketa gutunaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko banku entitateetan ordaintzeko. Ordainketa gutunaren ereduak Interneten dagoen deialdiaren aipuan, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, “Zerbitzuak”, “Enplegu Publikoa” atalean.

–Banestoko (Banco Español de Crédito) 0030 8124 87 0870002271 kontuan eskudirutan edo bankuko transferentzia bidez ordainduz; horrelakoetan, ordainagirian datu hauek jarri beharko dira nahitaez:

- Izangaia izen-deiturak.
- NANA/IFZ.
- Ordainketa zein kontutan egiten den, haren zenbakia.
- Kontzeptua: oposizioak.
- Deialdiaren xedeko lanpostua.

#### **3.2. Eskabideak.**

Eskabideak deialdi honen eranskineko ereduari lotu behar zaizkio eta, haietan, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela. Eskabidearen ereduak Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro bulegotan dago eskuragarri. Interneten bidez ere lortzen ahal da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, bai argitaratzen den aldizkari ofizialetik abiatuta, bai atal honetatik abiatuta: “Zerbitzuak”, “Enplegu Publikoa”.

Deialdian parte hartzeko eskabideak hura Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, hogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

Eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitezkoak ofizioz edo interesdunak eskaturik zuzentzen ahalko dira, noiznahi ere.

Aurkezteko, baliabide hauetako edozein erabil daiteke:

A) Bide telematikoa.

A.1) Internet bidez, deialdi honen fitxan den “Inskripzioa eta ordainketa telematikoa” izeneko estekan sartuta, Nafarroako Atariaren “Zerbitzuak”, “Enplegu publikoa” atalean, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean.

Aurkezteko eta ordaintzeko modu hau ezin izanen da erabili tasak ordaintzetik salbuesten duen frogagiria aurkeztu behar denean, ezta 3.3 oinarriko Bi eta Hiru zenbakietan aipatzen den kasuetan ere.

A.2) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoa, Nafarroako Gobernuaren web atarian eskura baitago.

B) Aurrez aurre.

Deialdian parte hartzeko eskabideak Hezkuntza Departamentuko Erregistro Orokorrean (Santo Domingo kalea, 8, 31001 Iruña) edo Nafarroako Gobernuaren gainerako erregistro bulegoetako edozeinetan (zerrenda 2008ko 14. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 30ean) aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazi diren bideetako bat erabiliz.

Eskaera posta bulegoan aurkeztea aukeratuz gero, gutun-azalak irekita egon beharko du, postetxeko langileek data eta zigilua jar diezazkizoten ziurtatu eta Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean (Karlos III.aren etorbidea, 2; 31002 Iruña) igorri aurretik.

3.3. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Bat.–Espediente formalizatzeko eta azterketa eskubideengatik tasa ordaindu izanaren frogagiria.

Bi.–Deialdian igoera txandan parte hartu nahi duten izangaiek, lehengoaz gainera, deialdi honen 2.1.2 oinarrian jasotzen diren betebeharrak betetzen dituztela frogatzen duen agiria gehitu beharko diote eskabideari, baldin eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa ez den Nafarroako beste administrazio publikoren bateko langile finkoak edo Nafarroako Foru Komunitateari esku-aldatutako Justizia Administrazioari zerbitzuei atxikitako langile finkoak badira.

Hiru.–Desgaitasunak dituzten pertsonentzako erreserba txandan onartuak izateko, baita 3,1 oinarriaren (tasak ordaintzearen salbuespena) a) atalaren eta 8. oinarriaren (lanpostuak aukeratzeko lehentasuna) ondorioetarako eta denborak eta baliabideak egokitzeko eskaria egiteko ere, %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten izangaiek hori frogatu beharko dute, agiri hauetarik baten jatorrizkoaren edo kopia konpultsatuen bidez:

–Immersok edo autonomia erkidegoan eskumena duen organoak luzatutako ziurtagiria.

–Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, prestazio bat jasotzeko eskubidea onartzen diona hauetakoaren bat izateagatik: ezintasun iraunkor osoa, erabateko ezintasun iraunkorra edo baliaezintasun handia.

Desgaitasuna duten izangaiek probak egiteko denboren eta baliabideen egokitzapenak eskatzeko, hala adierazi beharko dute eskabidean, eta aparteko orri batean azaldu beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zein egokitzapen eskatzen duten. Egokitzapenak eskatzeko bada eredu bat interesdunen eskura [www.navarra.es](http://www.navarra.es) web orrian, “Zerbitzuak”, “Enplegu Publikoa” atalean, deialdiaren aipuan.

### **4.–Izangaia onarpena eta erreklamazioak.**

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Sarrerarako Hautapeneren Zerbitzuko zuzendariak, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak eskuordetuta (103/2008 Ebazpena, ekainaren 26koa), ebazpena emanen du izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila aginduko.

4.2. Behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, izangai baztertuek hamar egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioak aurkezteko epea bukaturik eta haien gaineko ebazpena eman ondoren, Sarrerarako Hautapenaren Zerbitzuko zuzendariak, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak eskuordetuta (103/2008 Ebazpena, ekainaren 26koa), ebazpena emanen du, izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko.

4.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa egiteko eskubideak itzuliko, baldin eta beraiei egotzitako arrazoiengatik baztertzen badira.

#### **5.-Epaimahaia.**

5.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

–Mahaiburua: Luis Javier del Portillo Basterra jauna, Iruñeko Donapea BHIko zuzendaria.

–Ordezkoa: Luis Orús Marca jauna, Hezkuntza Departamentuko Egoitzen eta Ikastetxeen Mantentze-lanetarako Ataleko burua.

–Mahaikidea: José Ángel Urtasun Urdániz jauna, lanbide-heziketako irakasle teknikoa.

–Ordezkoa: Juan Carlos Ciria Fadrique jauna, lanbide-heziketako irakasle teknikoa.

–Mahaikidea: Jesús Menéndez Barrero jauna, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko (NAPI) Prestakuntza Ataleko burua.

–Ordezkoa: Alvaro Martínez Fernández jauna, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko (NAPI) Prestakuntza Zerbitzuko Garapen eta Hobekuntza Ataleko burua.

–Mahaikidea: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Langileen Batzordeak izendatutako ordezkari bat.

–Ordezkoa: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Langileen Batzordeak izendatutako ordezkari bat.

–Mahaikide idazkaria: Antonio Iriarte Moncayola jauna, Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari atxikitako Araubide Juridikoaren Ataleko burua.

–Ordezkoa: Sonia Soret Eguíluz andrea, Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari atxikitako Kudeaketa Juridiko-administratiboaren Ataleko burua.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta mahaikide idazkariak edo haien ordezkoez egon beharko dute bertan.

5.3. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretako batean badaude, eta organo dei egileari hala jakinaraziko diote.

Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errefusatzeari, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.4. Epaimahaiak gehiengo ez erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduaren gainean sortzen diren arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake, proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta haietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

#### **6.-Oposizioa nola egingen den.**

6.1. Oposizioa ez da 2011ko urtarrila baino lehen hasiko. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenarekin berean finkatuko dira probak hasteko tokia, eguna eta ordua.

6.2. Oposizioa ariketa bakarrak osatuko du, eta ariketa hiru proba objektiboz osatuko da (testa).

Hona hemen proben nondik norakoak:

Lehen proba: zenbait aukera eskaintzen dituzten galderei erantzun beharko zaie, erantzun zuzena bakarria izanik, hizkuntzarako, zenbakietarako, ortografiarako eta burokrasiarako gaitasuna neurtzeko. Erantzun okerrengatik puntuak kenduko dira.

Bigarren proba: galdera batzuk erantzun beharko dira deialdiaren eranskineko gai zerrendaren I. zatiko arloei buruz (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio oinarriko arautegia). Aukera batzuk izanen dira, baina horietarik bat bakarrik izanen da zuzena. Erantzun okerrengatik puntuak kenduko dira.

Hirugarren proba: Ezagutza teoriko-praktikoak. Zenbait aukera eskaintzen dituzten galderei erantzun beharko zaie, eta erantzunen arteko bat bakarria izanen da zuzena. Galderak gaitetik II. zatiko arloei buruzkoak izanen dira. Erantzun okerrengatik puntuak kenduko dira.

Hiru probak egun berean egingen dira, bata bestearen ondoren. Epaimahaiak erabakiko du zenbat iraunen duen hiru probetarikoko bakoitzak, hasi baino lehen.

Proba hauek egiteko ez da inongo testurik erabiltzen ahalko, ezta hizteirik, kalkulagailurik edo bestelako materialik ere, mutur lodiko bolaluma urdina edo beltza ez bada.

6.3. Oposizioa ariketaren balorazioan 100 puntu eman daitezke gehienez ere, honela banatuak:

–Lehenengo proba: gehienez ere 25 puntu.

–Bigarren proba: gehienez ere 25 puntu.

–Hirugarren proba: gehienez ere 50 puntu.

6.4. Ariketa baztertzailea izanen da. Bazterturik geldituko dira hiru probetan kalifikaziorik altuena lortzen duen izangaiaren puntuazioaren erdira gutxienez iristen ez diren izangaiak. Hori hala izanik ere, ariketa gaitetik jotzeko, deialdiaren oinarrietan ariketarako ezarritako gehieneko puntuazioaren 1/3 atera beharko da gutxienez.

6.5. Ariketa zuzendu ondoren, epaimahaiak jendaurrean jarriko du, Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean eta ariketa egin den tokian, hura gaitetik duten izangaien zerrenda, lortutako kalifikazioekin. Zerrenda Interneten bidez ere kontsultatzen ahalko da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, Zerbitzuen Katalogoan, Enplegu Publikoaren atalean, deialdiari buruz dagoen aiputik abiatuta.

6.6. Ariketarako deialdi bakarria egingen da. Izangaiek nortasun agiri nazionala, pasaporte, gidabaimena edo epaimahaiaren iritziz identifikaziorako balio duen beste agiriren bat aldean dutela agertu beharko dute. Azterketara agertzen ez direnak edo arestian aipatutako agirietako baten bidez beren nortasuna frogatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.7. Hautaprobak egiteko, onartutako desgaitasunen bat dutenentzat beharrezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak ezarriko dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

#### **7.-Probak gaitetik dituzten zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpeneak.**

7.1. Hautaprobak bukaturik, epaimahaiak jendaurrean jarriko du, probak egin diren tokian eta Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean, probak gaitetik dituzten zerrenda, oposizioan lortutako kalifikazioekin. Gero, zerrenda hori Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileari igorriko dio, puntuaziorik altuenak izateagatik deialdiko lanpostuetan sartzen ahal diren izangaiak izendatzeko proposamenarekin eta espediente osoarekin batera. Proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrenda Interneten bidez ere kontsultatzen ahalko da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, Zerbitzuen Katalogoan, Enplegu Publikoaren atalean, deialdiari buruz dagoen aiputik abiatuta.

Berdinketa izanez gero, hirugarren proban (ezagutza teoriko-praktikoak) puntuazio altuagoa erdietsi duenaren alde jotzeko da. Eta, berdinketak jarraituz gero, kontuan hartuko dira, hurrenez hurren, hizkuntzarako, zenbakietarako, ortografiarako eta burokrasiarako gaitasuna neurtzeko lehen proban eta bigarren proban lortutako puntuazioak.

7.2. Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epean, proposatutako

izangaiek berariazko inprimaki batzuk jaso eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Sarrerarako Hautapenaren Zerbitzuan:

7.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finko ez diren izangaiek:

a) Nortasun agiri nazionalaren bi fotokopia konpultsatua, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen agiri baliokideren batenak.

b) Deialdiaren 2.1.1.c) oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena, edo, hala bada, eskaerak aurkezteko epean titulua eskuratzeko moduan dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

c) Euskaraz jakin beharra atxikia duten lanpostuak eskuratu nahi baldin badira, Hizkuntza Eskola Ofizial batek luzaturiko Euskararen Gaitasun Agiriaren edo ofizialki horren baliokidetzat jotzen den agiriaren fotokopia konpultsatua, 2. edo 3. jakite maila duen lanpostua eskuratu nahi izanez gero, edo Hizkuntza Eskola Ofizialean lau ikasmaita edo Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan bederatzi "urrats" gaindituak izatearena, 1. jakite maila duen lanpostua eskuratzeko.

d) Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Atalak emandako txostena, interesdunak karguan aritzea eragozten dion eritasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela frogatzeko.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

e) Eginkizun publikoetarako ezgaitua edo gabetua ez izatearen eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia ez izanaren zinpeko aitopena.

Proposatutako izangaiek Espainiako nazionalitatea ez badute, zinpeko aitopen bat aurkeztu beharko dute, adierazteko ez dutela beren Estatuko funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik.

f) Zin egin edo hitz ematea Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men egiten diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

Deialdi hau egin ez duen Nafarroako beste administrazio publikoren bateko langile finkoek edo Nafarroako Foru Komunitateari transferitutako Justizia Administrazioari zerbitzuei atxikitako langile finkoek, gainera, beste ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aurreko administrazioko espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzeko, hots, sarrerari, antzinasunari, mailari, egoera administratiboari eta abarri buruzko guztiak.

7.2.2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak diren izangaiek:

a) Deialdiaren 2.1.1.c) oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena, edo, hala bada, eskaerak aurkezteko epean titulua eskuratzeko moduan dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

b) Euskaraz jakin beharra atxikia duten lanpostuak eskuratu nahi baldin badira, Hizkuntza Eskola Ofizial batek luzaturiko Euskararen Gaitasun Agiriaren edo ofizialki horren baliokidetzat jotzen den agiriaren kopia konpultsatua, 2. edo 3. jakite maila duen lanpostua eskuratu nahi izanez gero, edo Hizkuntza Eskola Ofizialean lau ikasmaita edo Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan bederatzi "urrats" gaindituak izatearena, 1. jakite maila duen lanpostua eskuratzeko.

7.2.3. Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

7.3. Aipatu epearen barrunean, eta aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, arestiko agiriak aurkeztzen ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta ordura arteko egintza

guztiak baliorik gabe geldituko dira, beren eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna galarazi gabe.

7.4. Aurreko atalean ezarritakoa gertatuz gero, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak probak gainditu dituztenen zerrendan, 7.1 atalean aipatutakoan, hurrengo den izangaiarekin beteko du hutsunea, eta horrekin ere aurreko atalean adierazitako moduan jokatu da.

7.5. Nahitaezko betebeharrak baldintzen frogagiriez gain, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, bere eskudantziak erabiltzeko, beste edozein agiri eska diezaioke izangaiari, eta horrek deialdi honen 7.2 oinarrian ezarritako moduan aurkeztu beharko du.

## **8.–Lanpostu hutsak hautatzea.**

8.1. Aurreko arauan xedatu dena betetzen duten izangaiek, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak (NAPI) hartarako jartzen dien epean, aditzera eman beharko dute eskaintzen zaizkien lanpostuetatik zein hautatzen duten. Aukeratu beharreko lanpostuak hasieran deitutakoak izanen dira, edo jakinarazten zaizkien beste batzuk, baldin eta zerbitzuaren beharrei jarraituz horiek aldatzea erabakitzen bada.

8.2. Lanpostu hutsak aukeratzeko, %33ko desgaitasun aitortua edo handiagoa duten izangaiek lehentasuna izanen dute gainerako izangaien aurretik, kontuan hartu gabe zein txandaren bidez parte hartu duten.

Hala izanagatik ere, desgaitasuna duen izangairik bada, eta horrek eragina badu lanpostu bat edo bestea hautatzeko, aukeratzeko hasieratik, desgaitasunarekin hobekien egokitzen direnak esleitu zaizkie, horren gainean balorazio eta orientazio talde eskudunek egiten duten txostenaren arabera.

8.3. Hautaprobak igoera txandan gainditzeko dituzten izangaiek deialdiko lanpostuak betetzeko lehentasuna izanen dute txanda irekiko izangaien aldean, aurreko atalean adierazitako salbuespena kontuan hartuz.

## **9.–Izendapena, lanpostuen esleipena eta jabetza hartzea.**

9.1. Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, ebazpen baten bitartez, aurreko oinarrietan ezarritakoa betetzen duten izangaiek Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari funtzionario izendatuko ditu, eskolazain lanetan aritzeko. Ebazpen horren bidez lanpostuen esleipena ere egingen da.

9.2. Izendapenak eta lanpostuaren jabetza hartzeak nomina eta plantillako funtzionario bilakatuko ditu izendatuak, eta Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioen arloan indarra duten xedapenetan ezarri diren eskubide eta betebeharrak guztiak izanen dituzte. Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliatuko dira, araubide horretan ezarritakoaren babesean.

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutua onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. puntuan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz, Nafarroako administrazio publikoaren edozein montepioaren eskubide pasiboetan sarturik daudenek bi aukera izanen dituzte: Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoaren montepioan segitzea, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen bidezko eskubide pasiboaren araubideak babesturik, edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzea.

9.3. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da eta noiznahi aldatzen ahalko dute administrazio organo eskudunek, aplikatzeko den araudian ezarritakoarekin bat.

9.4. Funtzionarioek bizilekua destinoko herrian ez izateak ez du alde batera uzten lantokira puntual iritsi beharra eta lanaldia eta lanpostuko eginkizunak zuzen bete beharra, eta, gainera, ez da inolako konpentsaziorik jasoko lantokirako joan-etorriengatik.

Behar bezala justifikatutako kasu batzuetan, administrazio publikoek zilegi izanen dute funtzionarioei destinoko herrian bizi daitezela eskatzea, lanpostuko eginkizunengatik eta eskatzen den dedikazioagatik bidezkoa denean.

9.5. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta izangai izendatuek hilaibeteko epean jabetu beharko dute lanpostuez, izendapenaren jakinarazpenetik kontatzen hasita.

Aipatutako epean eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangaien bat lanpostuaren jabe egiten ez bada, Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionario izateko eskubide guztiak galduko ditu. Hala gertatzen bada, deialdiaren 7.4 atalean ezarritakoari jarraikiko zaio.

9.6. Izangai bat funtzionario bihurtu eta lanpostuan batere aritu gabe, zuzenean eta berak eskatuta, borondatezko eszedentzia ematen bazaio jabetza hartzearen egunetik beretik, data horretan beste administrazio publiko batean ari delako, kasuko lanpostu hutsa ere deialdiaren 7.4 atalak agintzen duen moduan beteko da.

9.7. Aurreko bi ataletan aipatutako kasuetan, izendapena egin aurretik hautaturiko lanpostua ez da aldatuko. Beraz, funtzionario berriei, zuzenean, egoera horien ondoriozko lanpostuak esleituiko zaizkie.

9.8. Hautaprobak gainditu eta Nafarroako Administrazio Publikoan euskara jakin beharra duten lanpostuetan sartzen direnek, aurrerantzean, hutsik izanik hizkuntza hori jakitea nahitaezkoa duten lanpostuak betetzeko deialdietan baizik ez dute parte hartzerik izanen.

Aurreikuspen hori ez da aplikatuko baldin eta, eskatutako hizkuntzaren ezagutza kontuan hartu gabe, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioari esker, betebeharrak hori ezarrita ez duen beste lanpostu bat ere eskuratzeko aukera baldin badu.

#### **10.–Aldi baterako kontratuatarako izangaien zerrenda.**

10.1. Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Errege-lamenduaren 42. artikuluan, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren azaroaren 14ko 146/2005 Foru Aginduan (lanpostuak aldi baterako betetzeko kudeaketa arauak onesten dituen) eta oinarri honetan ezarritako prozedurarekin bat, aldi baterako kontratazioatarako zerrenda hauek prestatuko dira hautapen-prozesuan parte hartu eta lanposturik lortzen ez duten izangaiekin:

a) Probak gainditu arren lanposturik lortzen ez duten izangaien zerrenda.

b) Administrazio Erroan aldi baterako kontratatutako izateko izangaien zerrendak.

10.2. Probak gainditu arren lanposturik lortzen ez duten izangaien zerrenda eta Administrazio Erroan aldi baterako kontratatutako izateko izangaien zerrenda.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Sarrerarako Hautapenaren Zerbitzuak espedientea igorri ondoren, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez onetsiko dira probak gainditu arren lanposturik lortzen ez duten izangaien zerrenda eta probak gainditzeko dituztenena, une horretan indarrean diren kudeaketa arauarekin bat, eta argitaratu egiten dira Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean (Karlos III.aren etorbidea, 2, atalondoa, Iruña) eta Nafarroako Gobernuaren web orrian: [www.navarra.es](http://www.navarra.es).

Hauxe izanen da aldi baterako kontratazio zerrendetako izangaien ordena: oposizioa gainditu arren lanposturik lortu ez dutenen kasuan, sarrerako hautapen-prozesuan lortutako puntuaziorik handienaren arabera; gainerako izangaien kasuan, gainditutako probetan lortutako puntuazioen batura. Berdinketa dagoenean, nor nagusitzen den erabakitzeko, deialdi honetan kasu horietarako ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

Aldi baterako kontratazioarako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei onartzen zaienik 2. oinarrian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela; izan ere, horiek oinarri honetan adierazten den bezala frogatu beharko dituzte.

Izangaiei deitu eta, kasua bada, haiek kontratatzerakoan, Administrazio Erroan, honako hauetan xedatutakoari jarraikiz jokatu da: Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88.b) artikulua eta hurrengoak; lanpostuak aldi baterako betetzeko arauak ematen dituen Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren azaroaren 14ko 146/2005 Foru Agindua (144. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, abenduaren 2an); eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deia egiterakoan, kontuan hartuko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriaren 4. atalean ezarritakoa.

Deialdiaren 2. oinarrian adierazten diren titulazio betebeharrak eta gidabaimenari dagozkionak betetzen direla frogatzeko agiriak kontratatutako izateko deia jasotzen duten izangaiek bakarrik aurkeztu beharko dituzte, kontratua formalizatzen denean, jatorrizko agiriak edo behar bezala konpultsatutako kopien bitartez.

Eskatzen diren agiriak aipatu epean aurkeztzen ez dituzten izangaiek, aski justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, eta eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenek deialdian parte hartzetik eratorritako eskubide guztiak galduko dituzte; betiere, parte hartzeko eskabidea faltsutzeagatik legokiekeen erantzukizuna galarazi gabe.

Sarrera prozesuko eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira beharkizunak eta, orobat, hautaprobak egin bitartean eta kontratazioaldiak iraun bitartean.

#### **11.–Errekurtsoak.**

Epaimahaiaren egintzen eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsua jartzen ahaliko da, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileari zuzendua, errekurtsoren xedeko egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Deialdiaren, oinarrien eta horiek aplikatzeko egintzen kontra, epaimahaiak hartutakoaren kontra izan ezik, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsua jartzea, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariari zuzendua, errekurtsoren xedeko egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluan eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Iruñean, 2010eko ekainaren 17an.—Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea, Gregorio Eguilaz Gogorza.

# I. ERANSKINA

## Eskabidea

### Hautaprobetan onartua izateko eskabidea

#### Deialdiaren datuak

|                                                                                                                 |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Lanpostua: <b>ESKOLAZAINA</b>                                                                                   |
| Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizial honetan argitaratu zen: zenbakia: <b>79</b> , eguna: <b>2010-06-30</b> |

#### Sartzeko txandak

|                                        |                                         |                                                                           |
|----------------------------------------|-----------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------|
| Txanda irekia <input type="checkbox"/> | Igoera txanda* <input type="checkbox"/> | Desgaitasunen bat dutenentzako erreserba txanda* <input type="checkbox"/> |
|----------------------------------------|-----------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------|

#### Norberaren datuak

|                            |             |                 |
|----------------------------|-------------|-----------------|
| Izen-deiturak:             |             |                 |
| NANA edo agiri baliokidea: |             | Jaioteguna:     |
| Jaioterria: ( )            |             | Nazionalitatea: |
| Helbidea:                  |             |                 |
| Herria:                    | Probintzia: | Posta kodea:    |
| Sakelako telefonoa:        |             | 2. telefonoa:   |
| Posta elektronikoa:        |             |                 |

#### Aurkeztutako agiriak

|                                                     |                                                                                                      |                                                                     |
|-----------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------|
| Desgaitasunaren frogagiria <input type="checkbox"/> | Denboren eta/edo baliabideen egokitzapenak eskatzen ditu, beste orri batean <input type="checkbox"/> | Euskararen gaitasun agiria edo baliokidea* <input type="checkbox"/> |
|-----------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------|

#### Ondoko hauen proba eskatzen du

|                                   |                                    |                                     |
|-----------------------------------|------------------------------------|-------------------------------------|
| Euskara* <input type="checkbox"/> | Ingelesa* <input type="checkbox"/> | Frantsesa* <input type="checkbox"/> |
|-----------------------------------|------------------------------------|-------------------------------------|

Sinatzaileak ESKAERA egiten du eskabide honetan adierazitako prozesuan onartua izan dadin eta ADIERAZTEN DU, erantzukizuna berea izanik, bertan agertzen diren datu guztiak egiazkoak direla, deialdiaren oinarrian eskatutako betebeharrak guztiak betetzen dituela eta datu horiek guztiak agiriaren bidez frogatzeko konpromisoa hartzen duela.

(Sinadura)

.....(e)n, 2010eko .....aren .....(e)an.

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA.  
LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA.

(\*) Deialdiaren oinarrietan xedatutakoari jarraikiz.

## II. ERANSKINA

### *Gai zerrenda*

#### *Lehen zatia. Araudia*

1. gaia.—Espainiako 1978ko Konstituzioa: printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak. Botere Judiziala. Koroa. Gorte Nagusiak. Gobernua eta Estatuko Administrazioa.
2. gaia.—Europar Batasuna. Parlamentua. Kontseilu Europarra. Europako Batzordea. Kontseilua (ministroena). Justizia Auzitegia. Beste erakunde batzuk.
3. gaia.—Europar Batasuneko antolamendu juridikoaren iturriak: jatorrizko zuzenbidea eta zuzenbide eratorria.
4. gaia.—Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeteari buruzko Lege Organikoa: Izaera eta esanahia. Atariko titulua.
5. gaia.—Nafarroako Parlamentua edo Gorteak. Nafarroako Comptos Ganbera. Arartekoa.
6. gaia.—Nafarroako Gobernua: eginkizunak. Osaera, izenda-pena, eratzea eta kargu-uztea. Eskumenak. Funtzionamendua. Nafarroako Gobernuko lehendakaria: eginkizunak.
7. gaia.—Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritako printzipio orokorrak. Herritarrek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideak.
8. gaia.—Administrazioaren xedapenak eta egintzak. Egintza administratiboen betebeharrak. Egintzen eraginkortasuna. Deuseztasuna eta deusezgarritasuna.
9. gaia.—Prozedura administratiboen xedapen orokorrak: prozeduraren abiaraztea, antolamendua, instrukzioa eta amaiera. Bide administratiboko egintzen berrikuspene: ofiziozko berrikuspene eta administrazio errekursoak.
10. gaia.—Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua. Langile motak. Funtzionario publikoak hautatzea. Administrazio egoerak. Funtzionarioen eskubideak, betebeharrak eta bateraezintasunak. Ordainsariak.

#### *Bigarren zatia. Ezagutza teoriko-praktikoak.*

- Lanbide arlo batzuen eduki teoriko-praktikoen gaineko gaiak, eraikinen mantentze-lanekin eta konponketekin lotuak.
1. gaia.—Oinarrizko elektrizitatea.
- Elektrikarien oinarrizko tresnak (bihurkinak, guraizeak, aliketak...) ezagutu, erabili eta mantentzea.
- Eraikinetako banaketa kuadroak. (potentzia kontrolatzeko etengailua, magnetotermikoak, diferentzialak).

- Hots egiteko zirkuituak (pultsadoreak, txirrinak).
- Oinarrizko argi-zirkuituak (etengailuak; konmutadoreak; entxufe oinak, lurreko hargunearekin zein gabe; lanparak).
- Fluoreszente zirkuituak (pitzarazgailuak, erreaktantziak, lanpara fluoreszenteak).
- Zirkuitu bereziak (alarmak, larrialdiko argiak).
- Segurtasun neurriak. Konpontze lanetan hartu beharreko arreta.
2. gaia.—Oinarrizko mekanika-metal arotzeria.
- Mekanikako oinarrizko erremintak (mailuak, bihurkinak, hainbat motatako giltzak, zerrak, eskuko zulagailua...) ezagutu, erabili eta mantentzea.
- Sarrailgintzako oinarrizko eragiketak (ate eta leihoen doitzea, .....sarrailak eta ponpatxoak, metalezko altzarien mantentze-lanak).
- Segurtasun neurriak. Konpontze lanetan hartu beharreko arreta.
3. gaia.—Iturgintza-berokuntza.
- Iturginaren oinarrizko erremintak ezagutu, erabili eta mantentzea.
- Iturgintzako instalazioen (sanitarioak, txorrotak, zisternak, sifoak) mantentze-lanak.
- Berokuntzako instalazioen (zirkuituak, erradiadoreak betetzea eta purgatzea, galdara gelak, osagai nagusiak) mantentze-lanak.
- Segurtasun neurriak. Konpontze lanetan hartu beharreko arreta.
4. gaia.—Zurgintza.
- Zurgintzako oinarrizko erremintak (mailuak, zerrak, trintxak, zulagailu elektrikoa... eta bestelako osagarriak: lixak, lekedak...) ezagutu, erabili eta mantentzea.
- Arotzeriako oinarrizko eragiketak (ate eta leihoak doitzea).
- Sarrailak eta ponpatxoak. Pertsianak: motak, mantentze-lanak eta konponketa.
- Segurtasun neurriak. Konpontze-lanetan hartu beharreko arreta.
5. gaia.—Lorezaintza.
- Lorezaintzako oinarrizko tresnak (kimatzeko guraizeak, belarra mozteko makinak, aitzurrak...) ezagutu, erabili eta mantentzea.
- Lorategiak mantentzeko oinarrizko eragiketak (aspertsoreak jartzea, erregulatzea, funtzionamenduan jartzea, garbitzea...).
- Lorategirako produktuak (ongarriak, intsektizidak...) aplikatzeko oinarrizko ezagutzak.
- Oharra: gaiak bat etorriko dira deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarra duen legeriarekin.